

 <p>AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H</p>	IL0010	Biztanleen Udal Errolda: atzerritarren baja, atzerrira bizitzera joateagatik
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Euren jatorrizko herrialdera itzultzen diren edo beste herrialde batera bizitzera doazen atzerritarrek Biztanleen Udal Erroldan baja emateko eskaria da.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesatuta dauden atzerritarrek.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E064 Atzerrira emigratzeagatik baja eskaera](#)

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskari inprimakia
- Eskatzailearen jatorrizko NIE edo Pasaportea.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Orduetgia: 7:30 - 15:00

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez da inolako tasarik edo prezio publikorik ordaindu beharko.

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Berehala

ARAUDI APLIKAGARRIA

- [15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babestekoa](#)
- [7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituena](#) 15.1
- [1690/86 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Araudia onartzen duena eta Lurralde Mugen Araudia](#) 53 eta hurrengoak
- [14/2003 Lege Organikoa, azaroaren 20koa, 4/2000 Lege Organikoa aldatzen duena.](#)
- [Urtarrilaren 10eko 4/1996 Legea, udal erroldari dagokionean Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena.](#)
- [Abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Entitateen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Erregelamendua aldatzen duena.](#)
- [2015eko martxoaren 16ko ebazpena, Idazkariordetzarena, udalei udal erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkien 2015eko urtarrilaren 30eko ebazpena argitaratzen duena.](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

1. Eskaria eta dokumentazioa jaso eta egiaztatu.
2. Erregistratu, eskaneatu eta interesatuari kopia eman.
3. Datuak biztanleen erroldako aplikazioan sartu, baja emanez.
4. Baja dokumentuaren kopia.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Alkatetza

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Zerbitzu Orokorrak - Idazkaritza

OHARRAK

Atzerritarrek Udalera jo beharko dute euren baja eskatzera, atzerrira bizitzera badoaz, bestela Amorebieta-Etxanoko Biztanleen Erroldan erregistratutako azken helbidean erroldatuta jarraituko baitute.

Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu eta gero baja modu automatikoan egingo da.

INEren jakinarazpenaren zain egonez gero, epea 4 hilabete luza daiteke.

Bizileku aldaketa Estatu barruan: Amorebieta-Etxanon erroldatuta dagoen pertsona batek (atzerritarra ez denak), Estatuko beste udalerrri batera joateagatik udalerrrian baja hartu nahi badu, nahikoa izango da udalerrri berrian alta izapidetzea eta INE (Instituto Nacional de Estadística) bera izango da horren berri Amorebieta-Etxanoko Udalari emango diona.

Espainiako nazionalitatea duten pertsonen bizileku aldaketa Atzerrira: Amorebieta-Etxanon erroldatuta dagoen pertsona Atzerrira badoa bizitzera, dagokion Kotsulatuan edo Enbaxadan eman beharko du izena, eta kasu horretan ere INE (Instituto Nacional de Estadística) bera izango da horren berri Amorebieta-Etxanoko Udalari emango diona.

Informazio gehiago:

estatistika@amorebieta.eus

Udala: 94.630.00.02

